

**2019KO LEKUALDATZE-LEHIAKETAREN BEHIN BETIKO EBAZPENAREN  
ONDORIOZKO LANPOSTU-UZTE ETA LANPOSTU-JABETZEI BURUZKO  
JARRAIBIDEAK**

2020ko otsailaren 18an, EHAAn eta BOEn argitaratuko da Lan eta Justiziako sailburuaren 2020ko urtarrilaren 24ko Agindua, zeinaren bidez behin betiko ebazten baita honako lekualdatze-lehiaketa hau: Justizia Administrazioako Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko Kidegoetako eta Eskaletako funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketa, 2019ko ekainaren 25eko Aginduaren bidez iragarria.

Agindu horren bosgarren artikularen arabera:

*"Bosgarrena.- Jardunean, zerbitzu berezietan edo senitartekoak zaintzeko borondatezko eszedentzian dauden funtzionarioei dagokienez, betiere funtzionario horiek lehiaketa honetako ezein kidegotan edo eskalatan berriro sartzen ez badira (ez dira hor sartzen behin-behinean zerbitzu aktibora itzuli diren funtzionarioak), ondoko egun hauetan utziko dute lanpostua: Prozesu eta Administrazio Izapidetzakoek 2020ko otsailaren 21an, ostilara; Prozesu eta Administrazio Kudeaketakoek eta Laguntza Judizialekoek 2020ko otsailaren 25ean, astearte"*

Indarrean dagoen legedia betetze aldera, eta karrerako funtzionarioak lekuz aldatzeak batetik eta bitarteko funtzionarioek lanpostuak uzteak, bestetik, lantokiko zerbitzuaren beharrezanetan eragin ditzaketen disfuntzioak murrizte aldera, JARRAIBIDE hauek ematen dira:

**1. Plazak esleitzea.**

a) **Plantilla organikoa** duten organo judizialen kasuan, lehiaketa bidez organo judizial berean lortutako plazak esleitzeko hurrenkera honako hau da:

1. Bete gabe dauden plaza hutsak
2. Bitarteko langileek betetzen dituzten plaza hutsak.
3. Zerbitzu-eginkizunetan dauden titularrek betetzen dituzten plaza hutsak
4. Behin-behineko atxikipenean dauden titularrek betetzen dituzten plaza hutsak.

b) **Bulego Judizial Berria** ezarrita dagoen organo judizialen kasuan, esleipena lekualdatze-lehiaketan lortutako lanpostura eta dotaziora egingo da.

**2. Bitarteko funtzionarioak.**

Esleitu diren plazak betetzen ari diren bitarteko funtzionarioek utzi egin beharko dute lanpostua titularrak plazaren jabetza hartzen duenean, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2010eko irailaren 16ko Aginduaren 13. Artikuluaren arabera (agindu hori 2014ko maiatzaren 19ko Aginduaren bidez aldatu zen):

*"1.- Baldin eta funtzionario titular batek hartzen badu bitarteko funtzionario bat betetzen ari zen plaza bat, bitarteko funtzionarioa bertatik berehala kenduko da, ondorioak titularrak hartu **aurreko egunekoak** direlarik.*



*Lanpostua utzi behar izan duten bitarteko funtzionarioak dagokien lan-poltsara itzuliko dira, deitu izan aurretik esleituta zuten hurrenkera-zenbakiarekin".*

### **3. Zerbitzu-eginkizuna eta behin-behineko atxikipena.**

Plazaz jabetzeko epeei dagokienez, lanpostu bat zerbitzu-eginkizunetan betetzen duen funtzionarioentzat hauxe joko da "Funtzionarioaren herrizat": lanean diharduen herria. Destinoko zentro berean jarraitzen badu, lanpostua uzteko eguna eta plazaz jabetzeko eguna bata bestearen ostekoak izango dira.

### **4. Zerbitzu aktiboan berriro hastea.**

Plazaz jabetzeko epea (20 egun baliodun) Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean hasiko da (2020ko otsailaren 18an argitaratuko da). Lanpostuaz jabetzeko epea ez da ordainduko.

### **5. Kasu guztietan.**

- Destinoa Euskal Autonomia Erkidegoan lortzen duten karrerako funtzionarioek, 2020ko otsailaren 20ra arte, egun hori barne, helbide elektronikoko honen bidez: [personal\\_jus\\_provision@euskadi.eus](mailto:personal_jus_provision@euskadi.eus), jakinarazi beharko diote Justizia Administrazioari Zuzendaritzari, lortutako lanpostura joango diren eta, kasu horretan, lanpostuaz jabetuko diren eguna.
- Karrerako funtzionarioek lanpostua jabetzan hartzen duten aurreko egunean, Justizia Administrazioari Zuzendaritzak lehiaketan esleitutako lanpostuak betetzen dituzten bitarteko funtzionarioen lanpostu-uztea formalizatuko du, alde batera utzita hauek oportetean dauden edo baimena edo lizentzia hartuta dauden.
- Lekualdatze-lehiaketan plaza esleitu zaien eta lizentzia edo baimena hartuta dauden funtzionarioek (euskara-liberazioak eta liberazio sindikalak aparte utzita) lizentzia amaitu eta hurrengo egun baliodunean utziko dute lanpostua.

Euskara ikasteko liberazioen eta sindikatu-liberazioen kasuan, inolako lizentziarik hartuta ez dauden gainerako kasuen une berean utzi beharko da lanpostua.

Aurreko destinoan baimenduta bai baina hartu ez diren lizentziak eta baimenak bertan behera geldituko dira.

- Lanpostu-uzteak azken orduan egin beharko dira, uzten duten destinoari dagokion EATean. Lanpostuaz lehen orduan jabetuko dira, destino berriari dagokion EATean.

### **Azken xedapena: indarraldia.**

Jarraibide hauek une honetako lekualdatze-lehiaketan izango dituzte ondorioak.